

# **K**ARMELE IGARTUA sorkuntza beka 2026

XVI. edizioa

**Antolatzaileak**



[www.aretxabaleta.eus](http://www.aretxabaleta.eus)  
[www.idazten.com](http://www.idazten.com)



**Irrati Gidoia edo Podcasta**

# GINARRIAK

## PARTE HARTZAILEAK

16 urtetik gorako edozein pertsonak har dezake parte lehiaketan.

## LANAK

Irrati gidoiak edo podcastak euskaraz idatzita egongo dira.

Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du.

- Lanak originala izan behar du, euskaraz idatzia eta argitaratu gabea.
- Lan bakarra aurkeztu ahal izango da.
- Lerro arteko tartea 1,5ekoa izango da, times 12 letra- tipoan idatzia.
- Gutxienez 15 orrikoa eta gehienez 20koa izango da.

## GAIA

Gaia librea izango da.

## AURKEZPENA

Lanak posta arruntez edo posta elektronikoz bidal daitezke.

### Posta arruntez

- Helbide honetara bidaliko dira: **Otalora kalea 1, 20550 Aretxabaleta**
- Udaletxean bertan ere aurkez daitezke, jendeurreko ordutegian.
- Lanak hirukoiztuta aurkeztuko dira, gutun-azal baten barruan. Gutun-azalaren kanpoko aldean, helbidearen gainean, hau adieraziko da:  
"Kultura: Karmele Igartua Sorkuntza Lehiaketa. 2026: Irrati gidoia edo podcasta".  
Ale bakoitzak izenburua izango du orrialde guztietan.
- Gutun-azal handiaren barruan derrigorrezkoa da beste gutun-azal itxi bat sartzea (prika). Gutunazal horren kanpoko aldean lanaren izenburua bakarrik jarriko da, eta barruan datu hauek:
  - Egilearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa, eta jarraian, curriculum laburra.
  - NAN edo pasaportearen fotokopia.
  - Aitorpen idatzia, non adieraziko baita aurkeztutako lana jatorrizkoa dela eta argitaratu edo estreinatu gabea, eta ez duela inongo lehiaketatan saririk jaso.
  - Halaber, egileak berariaz aitortuko du deialdiaren oinarriak ezagutu eta onartzen dituela.

## Posta elektronikoz

- Lanak **kultura@aretxabaleta.eus** helbidera bidaliko dira.
- Mezuaren gaia: "Kultura: Karmele Igartua sorkuntza Lehiaketa. 2026: Irrati gidoia edo podcasta".
- Lana PDF formatuan aurkeztuko da, eta PDFaren izena lanaren izenburua izango da.
- Beste artxibo batean, posta arrunterako eskatu diren datu berberak idatziko dira.

Antolatzaileek idazlanak soilik bidaliko dizkiete epaileei, egileen anonimotasuna gordetzeko.

## LANAK AURKEZTEKO EPEA

Lanak bidaltzeko azken eguna: 2026ko urriaren 13a

## HAUTAKETA-PROZESUA

Epaimahaia Bergarako Idazle Eskolak izendatuko du. Erakunde horretako kideen eta literatura munduko pertsonen artean aukeraturiko kideekin osatuko da. Jasotako lan guztiak aztertu ondoren, epaimahaia irabazlea aukeratu du. Erabakia 2026ko abenduaren 20a baino lehen jakinaraziko da.

## SARIAK

Irabazleak 2.500 euroko diru saria jasoko du. Kopuru horretatik, aplikagarriak diren zerga-arauak betez atxiki beharrekoa deskontatuko da. Saria eman gabe gera daiteke, epaimahaia hala erabakitzen bada.

## JABETZA

Lan irabazlea Aretxabaletako Udalaren eta Bergarako Idazle Eskolaren jabetzan geratuko da urtebetez. Erakunde horiek epe horretan bakarrik erabili ahal izango dituzte egile-eskubideak, eta grabatzea edo zabaltzea erabakiz gero, egilearen izena aipatuko dute.

## OHARRAK

Lehiaketa honetan parte-hartzeak arau hauek eta epaimahaiaren erabakia erabat onartzea dakar berarekin.